

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

ALKATETZAREN ETA ERAKUNDE HARREMANEN SAILA

Garapenean Laguntzea

Garapenean laguntzeko proiektuetarako dirulaguntzak emateko Gasteizko Udalaren deialdia —2019 urtea— arautuko duten berariazko oinarriak

2019ko otsailaren 22an egindako ohiko bilkuran onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak garapenean laguntzeko proiektuetarako dirulaguntzak emateko Gasteizko Udalaren deialdia —2019. urtea— arautuko duten berariazko oinarriak. Deialdia argitara ematen da, denek izan dezaten horren berri, hala xedatzen baitute Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, lege horren araudia onetsi zeneko uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak, Toki Korporazioen Zerbitzuen Araudiaren 23. artikulua eta hurrengoek eta Gasteizko Udalaren Dirulaguntzak arautzeko Ordenantzak —2005eko ekainaren 17an eman zion hasierako onespena Gasteizko Udalbatzak, eta 2006ko urtarrilaren 13ko ALHAOn (5. zk.) argitaratu zen—.

2018ko abenduaren 28an onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak Gasteizko Udalaren 2019ko dirulaguntzen deialdiak arautuko dituzten oinarri orokorrak. Udalaren webgunean —www.vitoria-gasteiz.org— eta herritarrei laguntzeko bulegoetan kontsulta daitezke oinarri orokor horiek. Deialdi honetara aurkeztu nahi duten entitateek horiek beharko dituzte, eskabideak non eta nola aurkeztu eta zein betebeharrak izango dituzten jakiteko.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko otsailaren 22an

Garapenean Laguntzeko zinegotzi ordezkaria
JAIONE AGUIRRE LÓPEZ DE ARAYA

1. Dirulaguntzen ildoak

- 4. ildoak: Uraren eta saneamenduaren alorreko lankidetzak-proiektuak.
- 5. ildoak: Garapenean laguntzeko proiektuetarako laguntzak ematea.

2. Baliabide ekonomikoak

2019an, guztira 939.315,85 euro bideratuko dira garapenerako lankidetzarako urteko deialdira, udal aurrekontuko 0162 2391 4 8200 "Lankidetzarako dirulaguntzak" partidaren kontura, eta, horren osagarri, beste 375.000,00 euro, Gasteizko Udal Urak SA (AMVISA) udal enpresaren lankidetzarako aurrekontuaren kontura —enpresaren administrazio-kontseiluak 2018ko abenduaren 20an onetsitako ekarpena—. AMVISAREN ekarpena uraren eta saneamenduaren arloko proiektuen US atalera eta ez bestetara bideratuko da. Guztira, bada, 1.314.315,85 euro izango dira erabilgarri.

Baldin eta aurrekontu luzatukoa baino diru-kopuru handiagoz hornitzen bada 0162 2391 4 8200 "Lankidetzarako dirulaguntzak" partida 2019. urtean zehar, deialdiko atal bati edo batzuei aplikatzea erabaki ahal izango du organo kudeatzaileak, eta, gastu-dosierri izapidetu ondoren, ebazpena eman, beste deialdi bat egiteko beharrik gabe.

3. Deialdiaren xedea

3.1. Lankidetzak-ekintzak —Garapenerako Lankidetzaren 2016-2019ko Gida-planaren helburuei erantzuten diotenak— finantzatzeko laguntzak ematea da deialdiaren xedea.

a. Garapenerako lankidetzaren eta hezkuntzaren bitartez hirian elkartasunaren kultura sustatzen laguntzea.

b. Hiriko pertsonak, kolektiboak eta entitateak —Udala bera barne— benetan murgilaraziko dituzten programa eta ekintzak burutzea, garapeneraren eta elkartasunaren alorrean.

c. Giza garapen lokalerako prozesuetan laguntzea, honelakoak dakartzatelarik berekin:

— herritarren bizi-baldintzak hobetzea; bereziki, oinarrizko behar sozialei erantzutea,

— eta erakundeen, gizakien eta gizartearen ahalmenak sendotzea.

3.2. Zehazki, hauetarako emango da laguntza deialdi honen bitartez:

a. Jarraitutasun bat duten proiektuak, garapenerako lankidetzaren arlokoak (urteko proiektu kateatuak), 2017an hasiak.

b. Uraren eta saneamenduaren alorreko garapenerako lankidetzak-proiektuak.

c. Giza eskubideak babesteko proiektuak.

d. Sei hilabeteko epean gauzatzekoak diren lankidetzak-ekintza txikiak.

3.3. Deialdi honi dagozkionetarako, Ekonomia Lankidetzak eta Garapenerako Antolakundeko Garapenerako Laguntzako Batzordearen zerrendan ageri direnak joko dira garapenerako bidean dauden herrialdeetatik.

3.4. Deialdi honen barruan ez dira diruz lagunduko larrialdiko proiektuak, Larrialdietarako Arabako Funtsaren bitartez kudeatzen baitira horiek.

4. Deialdiaren atalak

4.1. Garapenerako Lankidetzaren 2016-2019ko Gida-planaren barruan, Gasteizko Udalak 2019. urtean lagundu nahi dituen garapenerako lankidetzaren esparruko urteko proiektu-mota desberdinetara zuzenduta daude deialdi honetako dirulaguntzak:

a. UK atala: 2017an hasitako urteko proiektu kateatuen jarraipena. Diru-zuzkidura: 325.000,00 euro.

b. US atala: Azpiegituren eta ur- eta saneamendu-sistemen arloko proiektuak, eta proiektu teknikoak egitea. Diru-zuzkidura: 619.315,85 euro (375.000,00 euro AMVISaren ekarpenaren kontura eta 244.315,85 euro Gasteizko Udalaren ekarpenaren kontura).

c. GE atala: Giza eskubideak babesteko proiektuak. Diru-zuzkidura: 270.000,00 euro.

d. PT atala: Gehienez sei hilabeteko epean gauzatzekoak diren proiektu txikiak. Diru-zuzkidura: 100.000,00 euro.

4.2. Baldin eta atalen bateko diru-kopurua agortzen ez bada, gainerako ataletako eskabideei erantzuteko baliatu ahal izango da esleitu gabeko kopurua, oinarri hauetan finkatzen diren betebeharrak betetzen eta puntuazioak lortzen direlarik. AMVISaren ekarpenaren zenbatekoa US atalerako baino ezingo da baliatu.

5. Proiektuen betebeharrak

5.1. Helburuak. Ekintzaren helburuak deialdi honen 3. puntuan adierazi diren irizpide orokorretara egokitzea.

5.2. Koherentzia. Burutuko den ekintza behar bezala azalduta egotea, eta erlazio koherentea egotea egoeraren diagnostikoaren, helburuen, emaitzen, jardueren eta proiektua gauzatzeko beharrek diren baliabideen artean.

5.3. Gaitasuna. Proiektua gauzatzeaz arduratuko den entitatearen helburuei eta lan-esperientziari buruz nahiko argibide ematea.

5.4. Identifikazioa eta formulazioa. Metodologia normalizatua erabiltzea, helburuak, emaitzak eta proiektua gauzatzeko beharrezkotzat jotzen diren baliabideak eta jarduerak zehazteko. Marko logikoa edo antzeko metodologia normalizaturen bat baliatu ahal izango da.

5.5. Gehienez ere proiektuaren kostu osoaren ehuneko 85eko dirulaguntza eskatu ahal izango zaio Gasteizko Udalari.

5.6. Aurrekontua eurotan kalkulatzeko, euroaren, dolarraren nahiz moneta nazionalaren arteko kanbio-tasen balioa erabiliko da; zehazki, proiektuak gauzatzeko diren herrialdetako banku zentralak edo Europako Banku Zentralak deialdi hau Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean argitaratzen dituztenak.

5.7. Giza eskubideetan oinarritutako ikuspegiari erantzun beharko diote proiektu guztiek, esan nahi baita aitortzen dela funtsezko aktoreak direla pertsonak beren garapenean, ezen ez ondasun eta zerbitzuen hartzaile pasiboak.

5.8. Sexuaren arabera berezita —emakumezkoak eta gizonezkoak— aurkeztu beharko dira populazioari nahiz hartzaileei buruzko datuak, bai proiektuan, bai justifikazioan, edo, elkarrekin datu horiek jaso badituzte, genero-identitatearen arabera berezita —emakumezkoak, gizonezkoak eta bestelako identitateak—.

5.9. Generoaren arloko betebeharrak hauek bete beharko dituzte lankidetzaren proiektu guztiek:

a. argi definituta edukitzea emakumeengan izango duen eragina, haien kaltegarri izan daitekeen emaitza oro ekiditea eta, behar izanez gero, horiek neutralizatzeko neurri zuzentzaileak aurreikustea,

b. proiektuan emakumeen partaidetza sustatzea,

c. emakumei proiektuak sortzen dituen lanpostu ordainduak eskuratzeko aukera ematea,

d. eta, halaber, proiektuak genero-emaitzak definituta edukitzea, gutxienekoak badira ere.

5.10. Gasteizko kolektiboen benetako inplikazioa eduki beharko dute proiektu guztiek.

5.11. Gauzatzen hastea. Ezingo da dirulaguntza gauzatzen hasi 2019ko urtarrilaren 1a baino lehen, ezta, jaso ondoren, bi hilabetetik gora atzeratu proiektuari ekiteko unea. Hori gehiago atzeratzeko arrazoiren bat izanez gero, baimena eskatu beharko zaio Garapenean Laguntzeko Zerbitzuari, baina, edonola ere, baimen horrek ez du proiektua gauzatu eta dirulaguntza justifikatzeko epea luzatuko, hau da, izatekotan, proiektua gauzatzeko benetan baliatuko den denbora murriztuko da.

5.12. Publiko zabal bati proiektuen lorpenak modu egokian komunikatzeko lekukotasun nahiz informazio-material egokiak eskaini beharko dituzte lankidetzaren proiektu guztiek. Bereziki, proiektuen aurrerabideak eta lorpenak islatzen dituzten irudi filmatuak aurkeztu beharko dira, formatu editagarrian, jarduera publikoetan eta Udalaren kanalen bitartez —webgunea, sare sozialak, intranet eta abar— zabalduta izateko.

5.13. Jarraipen-metodologia definituta eduki beharko dute proiektu guztiek, eta hasierako jarduerak programatuta.

6. Deialdiaren lehentasunak

Garapenerako Lankidetzaren 2016-2019ko Gida-planaren ildotik, lehentasun hauek ezartzen dira deialdiko lankidetzaren atal guztietarako —atal bakoitzeko balioespen-irizpideetan islatuta daude—:

6.1. Gasteizko kolektibo edo profesionalen benetako inplikazioa nahiz garatzen direneko pertsona eta kolektiboekiko trukea sustatzen duten proiektuak —eta, horrenbestez, elkartasunaren kultura sustatzen laguntzen dutenak—.

6.2. Emakumeen ahalduntzea edo genero-ikuspegia sustatzea helburu nagusia duten proiektuak, edo ikuspegi hori benetan bere egiten dutenak, esan nahi baita gizon eta emakumeen egoera, baldintza, itxaropen eta behar desberdinen kontsiderazio sistematikoa egiten dutela, aldeak ezabatzea eta berdintasuna politika eta ekintza guztietan —maila guztietan eta planifikazio-, exekuzio- eta ebaluazio-fase guztietan— sustatzera bideratutako helburu eta ekintza espezifikoak jasoz.

6.3. Kolektibo eta pertsona migratzaileek hiriko garapenerako GKEekin elkarlan aktiboan diharduteneko proiektuak.

6.4. Afrikaren aldeko lehentasuna ezartzen da, helburu bikoitzarekin, zein baita, batetik, kontinente horretan lankidetzara sustatzea eta, bestetik, proiektuak balioesteko orduan aintzat hartu ohi diren alderdietako zenbait betetzeko orduan Afrikako herrialde askotan izan ohi diren zailtasunak konpentsatzea. Horregatik, Afrikan egitekoak diren proiektuei 1,05eko gehikuntza-koefizientea aplikatuko zaie baremazioan.

7. Eskabideak zeinek aurkez ditzaketeen eta zeinek ez

7.1. Irabazi-asmorik gabeko gobernuz kanpoko organizazio edo entitateek eskatu ahal izango dute dirulaguntza, baldin eta beren jarduerak deialdi honen xedearekin bat badatoz, eta Gasteizen duten presentzia eta jardunari eusten badiote. 1. eranskinean ageri diren irizpideen birtartez neurtuko dira presentzia eta jarduera horiek —atal bakoitzean adierazten den gutxieneko irizpide-kopurua bete beharko da—.

7.2. Deialdiko atal guztietatik kanpo geratuko dira, berariaz, honako hauek:

- a. oinarri orokorretan adierazten diren betebeharrak betetzen ez dituzten entitateak,
- b. Arabako SEADen Lagunen Elkartea, lankidetzara-hitzarmena sinatu baitu Gasteizko Udalarekin,
- c. Estatuaren, autonomia-erkidegoko administrazioaren, foru-aldundien eta gainerako administrazio lokalen menpeko instituzio eta zerbitzuak,
- d. enpresak eta irabazi-asmoa duten bestelako entitateak.

7.3. UK atalean, betetzen dituen bost betebeharrak zehaztu eta dokumentatu beharko ditu entitate eskatzaileak, oinarri hauen 1. eranskinean —presentzia eta jardunari dagokionez— adierazten direnen artetik.

7.4. Berariaz baztertuta geratzen dira deialdi honetako UK ataletik Garapenerako lankidetzarako dirulaguntzak emateko 2017. urteko deialdiko atal berean dirulaguntzarik eskuratu zuten entitateak.

7.5. US atalean, betetzen dituen sei betebeharrak zehaztu eta dokumentatu beharko ditu entitate eskatzaileak, oinarri hauen 1. eranskinean —presentzia eta jardunari dagokionez— adierazten direnen artetik.

7.6. GE atalean, betetzen dituen bost betebeharrak zehaztu eta dokumentatu beharko ditu entitate eskatzaileak, oinarri hauen 1. eranskinean —presentzia eta jardunari dagokionez— adierazten direnen artetik.

7.7. PT atalean, betetzen dituen lau betebeharrak zehaztu eta dokumentatu beharko ditu entitate eskatzaileak, oinarri hauen 1. eranskinean —presentzia eta jardunari dagokionez— adierazten direnen artetik.

7.8. Entitate berak ezingo du eskabide bat baino gehiago aurkeztu atal bakoitzeko.

7.9. Entitate berak ezingo du bo eskabide baino gehiago aurkeztu deialdi honetara.

UK atala: urteko proiektu kateatuak.

8. UK atalaren xedea

8.1. Hiru urtez —2017, 2018 eta 2019— jarraitutasuna izateko perspektibarekin planteatutako urtez urteko esku-hartze gisa 2017ko deialdiko UK atalean onartu ziren proiektuak bukatzen laguntzeko erreserbatuta dago atal hau, urteko proiektu kateatuen eskemari jarraituz.

8.2. Emaizta operatiboak aurreikusi beharko ditu proposamenak, dirulaguntzaren denbora-tartean (12 hilabete).

9. UK ataleko proiektuek bete beharreko baldintzak

Hauek izango dira UK atalean aurkezten diren proiektuek bete beharko dituzten baldintzak:

9.1. Baztertu egingo dira deialdi honen 5. puntuan galdatzen diren betebeharrak betetzen ez dituzten proiektuak.

9.2. Lortu nahi diren emaitzak:

a. Proiektuaren emaitzen parte handi batek begien bistakoa izan beharko du, dela garapen lokalerako proiektua, pertsonak babestekoa, trukeak bideratzekoa nahiz nazioarteko ekintzaren arlokoa.

b. Emaizta edo produktua plangintza-tresnak edo tokiko politikak sortzea denean, horiek onesteko eta ondoren aplikatzeko baldintzak bermatu beharko dituzte eskumena duten erakundeek, eta aplikazio horretan aurrera egitea hurrengo urtean laguntzen jarraitzeko baldintzetako bat izango da.

c. Deialditik kanpo utziko dira prozesuak martxan jartzea beste helbururik ez duten proiektuak —prestakuntza, sendotzea, partaidetza edo beste—, baldin eta emaitzak neurtzerik ez badago eta hobekuntza zehatzik ez badakarte parte hartzen duen populazioaren edo sektore jakinen bizi-baldintzei dagokienez.

9.3. Bideragarritasuna. Bideragarritasun tekniko eta ekonomikoaren azterlanen dokumentazioa, eta horiek egin dituzten pertsona edo entitateen esperientziarena.

9.4. Proiektua gauzatzeko epea ezingo da izan 12 hilabetetik gorakoa, dirulaguntza ordaintzen denetik.

9.5. Gasteizko Udalak urtean, gehienez ere, egingo duen ekarpena: 110.000,00 euro.

9.6. Nahikoa finantzaketa. Lehendik onetsitako finantzaketen —hitzartutako ekarpen balioztatuak barne— eta Gasteizko Udalarri eskatutako dirulaguntzaren baturak, gutxienez, proiektuaren kostu osoaren ehuneko 75 izan beharko du.

9.7. Finantza-programazioa. Aurrekontu xehatua aurkeztu beharko da, partidaz partida, urteko proiektuko jarduerari dagokienez.

9.8. Informazioa eta sentsibilizazioa Gasteizen. Informazio- eta sentsibilizazio-ekintzen berriazko programazioa bat barne hartu beharko du proiektuak, hiriko kolektibo bati zuzendua —edo hainbati—, kolektibo hori proiektuaren garapenean murgilarazteko.

9.9. Prozesuaren aurrerapenak. Aurreikusitako emaitzen definizioa, lau esparrutan:

a. proiektuaren helburu nagusiari lotuak,

b. generoaren arlokoak,

c. garapenerako agintari, plan edo ekimen lokalekiko koordinazioaren arlokoak —esparru lokalean, giza garapen lokaleko proiektuen kasuan, edo bakoitzari dagokion mailan, gainerrakoen kasuan—,

d. sentsibilizazioaren eta Gasteizko kolektiboekiko trukearen arlokoak.

9.10. Segimendua eta ebaluazioa. Proiektu orok jarraipen- eta ebaluazio-sistema bat eduki beharko du zehaztuta eta programatuta. Eskatzaileak proposatzen badio, proiektuaren ardura duen entitateak programatutako ebaluazio-jardueretan parte hartu ahal izango du Gasteizko Udalak.

10. UK ataleko dirulaguntzaren kontura ordain daitezkeen gastuak

10.1. Ematen diren dirulaguntzak honelako gastuak ordaintzeko baliatu ahal izango dira: higiezinak edo azpiegiturak eraiki edo konpontzea; materialak, hornigaiak eta tresneria nahiz beste ekoizpen-aktibo batzuk erosi eta garraiatzea; azterlan teknikoak; langileak; trebakuntza eta prestakuntza; Gasteizko sentsibilizazio-ekintzak, eta GGKE eskatzailearen nahiz proiektukide lokalaren zeharkako kostu edo funtzionamendu-kostuak.

10.2. Aparteko kasuetan bakarrik baliatu ahal izango da dirulaguntza lur sailak edo beste-lako ondasun higiezinak erosteko; halakoetan, gainera, argi eta garbi egiaztatu beharko da, dokumentu bidez, haiek erakunde publiko edo komunitario baten esku geldituko direla, eta gutxienez hamabost urtez erabiliko dela proiektuaren helburuetarako.

10.3. Giza eskubideak babesteko proiektuaren kasuan, estu-estu giza eskubideen urraketaren biktima diren pertsonak babesteko edo horiei laguntzeko ez diren jardueretatik sortzen diren gastuek ezingo dute gainditu eskatutako dirulaguntzaren ehuneko 20.

10.4. Proiektuaren azken kanpo ebaluazioa egiteko partida bat barne hartu ahal izango dute dirulaguntzek, hasitako jarduerari jarraitutasuna emango dion proiektua identifikatu eta formulatze aldera. Gehienez 12.000,00 eurokoa izan ahalko da partida hori. Nolanahi ere, konpromiso hauek bete beharko dira partida hori ematekotan:

— proiektuari zuzenean jarraitutasuna ematea, eta proposamen hori Gasteizko Udalarari aurkeztea,

— egingo den lanaren erreferentzia-terminoak Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak berrikusteko aurkeztea,

— lana egiteko profesionali egiten zaizkien gonbidapenak eta horien hautaketa Garapenean Laguntzeko Zerbitzuarekin kontrastatzea.

10.5. Sentsibilizazio-jarduerak sortutako gastuak estali ahal izango dituzte dirulaguntzek — gehienez dirulaguntzaren ehuneko 5—, baldin eta proiektuaren txostenean eta aurrekontuan zehaztuta badaude. Gastu horien artean, proiektua gauzatzearekin zuzenean zerikusia duten pertsonak Gasteizera egindako bisitei dagozkien gastuak sartu ahal izango dira, atzerriratuenak izan ezik, baita proiektuaren garapena eta aurrerapenak islatzen dituen ikus-entzunezko materiala lortzeak berekin dakartzan kostuak ere.

11. UK ataleko proiektuak balioesteko irizpideak

11.1. Oinarrien 2. eranskinean biltzen dira UK ataleko balioespen-irizpideak.

US atala: Uraren eta saneamenduaren arloko proiektuak.

12. US atalaren xedea

12.1. Edateko uraren eta saneamenduaren arloko proiektuetan laguntzera bideratuta dago US atala.

12.2. Populazioa edateko uraren eta saneamenduaren arloko zerbitzuez hornitzean zentratzen diren proiektuak bakarrik hartuko dira aintzat. Uraren zikloaren edozein partetan esku hartzeko proiektuak onartuko dira, azpiegituren edo sistemen arloko osagaia gailentzen delarik.

12.3. Aintzat hartzen da uraren eta saneamenduaren arloko proiektuak garatu eta gauzatzeko hainbat urte behar izaten direla —identifikatu eta diseinatzetik hasi eta guztiz gauzatu bitartean—, eta hainbat fase behar izaten direla abian jartzeko nahiz hainbat sektoretara zabaltzeko. Hori kontuan izanik, eta US atalerako dagoen zenbatekoa, irizpide hauek ezarri dira:

a. Lehentasuna emango zaio 2018ko deialdiko US atalean onetsitako sistemak eraikitzekeo proiektuak bukatzeari. Horregatik, 1,10eko gehikuntza-koefizientea aplikatuko zaie baremazioan proiektu horiei.

b. Aldez aurretik Gasteizko Udalaren dirulaguntzarik jaso ez duten proiektuen kasuan, sistemak eraiki edo bukatzera bideratutako eskabideak bakarrik aurkeztu ahal izango dira, dirulaguntza bukatzen delarik xede-populazioari benetako zerbitzu bat ziurtatzeko aukera eman beharko baitute.

c. Baztertu egingo dira sistemen eraikuntza bukatu eta dirulaguntzaren gauzatze-aldian dena delako zerbitzua benetan martxan jartzeko aukera ematen ez duten proiektuak.

12.4. Orobat aurkeztu ahal izango dira proiektu teknikoak egitera eta ez bestetara bideratuta dauden eskabideak, beharrezko diren azterlan partzialak barne.

12.5. Uraren sektoreko esku-hartzeek, teknologia, legedi eta finantzen arloko alderdiak ez ezik, hauek ere aintzat hartu beharko dituzte, testuinguruaren arabera: plangintzaren ingurukoak, sozioekonomikoak, kulturalak, generoaren ingurukoak, iraunkortasunaren, ingurumenaren eta arroen babesaren arlokoak, erabileraren, jabetzaren, antolakuntzaren eta eskaintza eta eskaeraren kudeaketaren ingurukoak eta abar.

13. US ataleko proiektuek bete beharreko baldintzak

Hauek izango dira US atalean aurkeztzen diren proiektuek bete beharko dituzten baldintzak:

13.1. Baztertu egingo dira deialdi honen 5. puntuan galdatzen diren betebeharrak betetzen ez dituzten proiektuak.

13.2. Proiektukidearekin batera gutxienez proiektu bat kudeatua izan beharko du entitate eskatzaileak, uraren eta saneamenduaren sektorean.

13.3. Lortu nahi diren emaitzak: Kalitateko ur- eta saneamendu-zerbitzu publikoak benetan baliaitu ahal izatea ahalbidetu beharko dute proiektuaren emaitzek, xede-populazioak bere gain hartzeko moduko kostuarekin.

13.4. Uraren arloko proiektuei buruzko dokumentazioak alderdi hauek jaso beharko ditu:

a. Hornikuntza-iturria. Baliabidearen eskuragarritasuna — nahiko ur, eta nahikoa kalitatekoa — egiaztatzen duten azterlanak edo dokumentazioa.

— zehazten den populazioa kontuan izanik nahikoa ur izango dela bermatzen duten ur-emanen neurketa,

— laborategiko entseguak, herrialdeko araudiaren arabera edo, haren ordeztu, Espainiakoaren arabera — 140/2013 Errege Dekretua — nahikoa kalitatea egiaztatzen dutenak.

b. Dokumentazio teknikoak:

— Oroitidazki teknikoak, proiektuaren deskribapen argi eta zehatzarekin.

— Oroitidazkiaren eranskinak, proiektuaren justifikazio teknikoaren euskarri: kalkulu hidrológico, hidrauliko eta estrukturalak, uraren kalitatearen inguruko azterlanak eta abar.

— Proiektuaren definizioa zehazten duten planoak.

— Aurrekontua.

— Gauzatze-baldintzak zehazten dituen agiria.

c. Zerbitzuaren iraunkortasunaren justifikazioa:

— Kontsumoa kontrolatu eta neurtzeko sistemak.

— Ustiapen-kostuen kalkulua.

— Aurreikusten diren tarifa eta diru-sarrerak.

13.5. Proiektu teknikoak egiteko eskatzen delarik dirulaguntza, gutxienez ere 13.1 puntuan zerrendatzen diren alderdiak barne hartu beharko dituzte horiek, oinarri sendoa edukitzeko, hartara, diseinatutako sistemak gauzatzeko gerora, eta horien iraunkortasunerako. Aurreikusitako obrak zenbat fasetan egin beharko liratekeen zehaztu beharko da lantzen diren proiektu teknikoetan, irizpide teknikoak aintzat harturik, eta fase bakoitzerako beharko litzatekeen diru-kopurua.

13.6. Dirulaguntza gauzatzeko epea gehienez 12 hilabetekoa izango da azpiegitura-proiektuen kasuan —dirulaguntza ordaintzen denetik—, eta gehienez sei hilabetekoa, aldiz, proiektu teknikoen kasuan.

13.7. Gasteizko Udalak urtean, gehienez ere, egingo duen ekarpena. Hauek izango dira atal honetan emango diren gehieneko dirulaguntzak:

- 190.000,00 euro proiektuko, azpiegitura eta zerbitzuetarako proiektuen kasuan,
- 10.000,00 euro eskabideko, proiektu teknikoak egiteko.

13.8. Nahikoa finantzaketa. Lehendik onetsitako finantzaketan —hitzartutako ekarpen baliotatuak barne— eta Gasteizko Udalari eskatutako dirulaguntzaren baturak, gutxienez, proiektuaren kostu osoaren ehuneko 75 izan beharko du.

13.9. Populazioa edateko uraren eta saneamenduaren arloko zerbitzuez hornitzeko proiektuetan, eskatutako dirulaguntzaren ehuneko 50, gutxienez, azpiegitura eta sistemak eraiki edo hobetzera bideratu beharko da.

13.10. Informazioa eta sentsibilizazioa Gasteizen. Informazio- eta sentsibilizazio-ekintzen berariazko programazioa bat barne hartu beharko du proiektuak, hiriko kolektibo bati zuzendua —edo hainbati—, kolektibo hori proiektuaren garapenean murgilarazteko.

13.11. Segimendua eta ebaluazioa. Proiektu orok jarraipen- eta ebaluazio-sistema bat eduki beharko du zehaztuta eta programatuta. Eskatzaileak proposatzen badio, proiektuaren ardura duen entitateak programatutako ebaluazio-jardueretan parte hartu ahal izango du Gasteizko Udalak.

14. US atalaren kontura ordain daitezkeen gastuak

14.1. Azpiegitura eta sistemen proiektuak gauzatzeko ematen diren dirulaguntzak honelako gastuak ordaintzeko baliatu ahal izango dira: higiezinak edo azpiegiturak eraiki edo konpontzea; materialak, hornigaiak eta tresneria nahiz beste ekoizpen-aktibo batzuk erosi eta garraiatzea; azterlan teknikoak; langileak; trebakuntza eta prestakuntza, eta GGKE eskatzailearen nahiz proiektukide lokalaren zeharkako kostu edo funtzionamendu-kostuak.

14.2. Aparteko kasuetan bakarrik baliatu ahal izango da dirulaguntza lur sailak edo bestelako ondasun higiezinak erosteko; halakoetan, gainera, argi eta garbi egiaztatu beharko da haiek erakunde publiko edo komunitario baten esku geldituko direla, eta gutxienez hamabost urtez erabiliko dela proiektuaren helburuetarako.

14.3. Dirulaguntzek ezingo dute proiektuaren azken ebaluaziorako partidarik hartuko beren baitan, Gasteizko Udalaren ekarpenaren kontura.

14.4. Entitate eskatzaileak, proiektukide lokalak edo proiektua finantzatzen duen beste erakunderen batek ebaluazioa egitea aurreikusia badu, proiektua finantzatzeko ekarpenzat egotzi ahal izango da. Halakoetan, Garapenean Laguntzeko Zerbitzuari bidali beharko zaio ebaluazio-txostena, egin ondoren.

14.5. Sentsibilizazio-jarduerak sortutako gastuei aurre egiteko ere erabili ahal izango dira dirulaguntzak —gehienez dirulaguntzaren ehuneko 5—, baldin eta proiektuaren txostenean eta aurrekontuan zehaztuta badaude. Gastu horien artean, proiektua gauzatzearekin zuzenean zerikusia duten pertsonen Gasteizera egindako bisitei dagozkien gastuak sartu ahal izango

dira, atzerriratuenak izan ezik, baita proiektuaren garapena eta aurrerapenak islatzen dituen ikus-entzunezko materiala lortzeak berekin dakartzan kostuak ere. Era berean, 2019-2020 ikas-turtean ikastetxeetako jardueretan parte hartzearen kostuak ere estali ahal izango dira, Vitoria-Gasteiz Hiri Hezitzailea programaren barruan.

14.6. Proiektu teknikoak egiteko ematen diren dirulaguntzek horiek egitetik sortzen diren zuzeneko kostuak bakarrik estali ahal izango dituzte, beste edozein motatako partidak bazter utzirik.

15. US ataleko proiektuak balioesteko irizpideak

15.1. 3. eta 4. eranskinetan daude azalduta US atalean baliatuko diren balioespen-irizpideak, bereizirik azpiegitura eta sistemen proiektuei aplikatuko zaizkienak eta proiektu teknikoak egi-teari aplikatuko zaizkionak.

GE atala: Giza eskubideen babesa.

16. GE atalaren xedea

Proiektuek barne hartzen dituzten jarduerak honako hauek izan ahalko dira:

16.1. Osotasun fisikoa arriskuan duten pertsonak edo komunitateak babestea edo laguntzea — gerretan dela, giza eskubideak sistematikoki urratu eta zigorrik jartzen ez den egoeretan dela—, honelako ekintzen bidez:

— osotasun fisikoa mehatxupean duten pertsona edo komunitate jakinak babesteko eskaria dagokien jurisdikzioei egitea,

— agintari zibil eta militar, diplomazialari, nazioarteko entitate eta erakundeekin... elkarriketatzea, pertsona edo komunitate jakinei dagokienez,

— alerta-sareak eratu eta aktibatzea, pertsona edo komunitate jakinen eskubideak urratzen direlarik.

16.2. Arrisku-egoeran dauden haurrak babesteko eta artatzeko programak.

16.3. Emakumeen eskubideak urratzearen kontrako borrokan aritzeko jarduera-programak.

— emakumeen kontrako adierazpen diskriminatzaileak,

— indarkeria matxista: bortizkeria fisikoa eta psikologikoa, emakume eta nesken trafikoa eta abar.

16.4. Laguntza espetxeetan: laguntza integrala, lege-aholkularitza, laguntza medikoa eta psikologikoa, senitartekoentzako arreta, prestakuntza eta abar.

16.5. Sexu-orientazioagatik edo genero-identitateagatik mehatxatu edo diskriminatutako pertsonak babestea.

16.6. Garapen-bidean dauden herrialdeetatik igarotzen ari diren migratzaileak babestea.

16.7. Gasteizen edo Estatuan osotasun fisikoa arriskuan duten pertsonak babesten laguntzeko jarduerak salbuespen-gisa eta aldi batez baino ezingo dira aintzat hartu.

17. GE ataleko proiektuek bete beharreko baldintzak

Hauek izango dira GE atalean aurkezten diren proiektuek bete beharko dituzten baldintzak:

17.1. Baztertu egingo dira deialdi honen 5. puntuan galdatzen diren betebeharrak betetzen ez dituzten proiektuak.

17.2. Proiektukidearekin batera gutxienez proiektu bat kudeatua izan beharko du entitate eskatzaileak.

17.3. Lortu nahi diren emaitzak. Giza eskubideen urraketen biktimak diren edo arrisku-egoeran dauden pertsonak babestea.

17.4. Bideragarritasuna. Nahikoa berme, proposatutako ekintzak burutzeko aukeraren inguruan.

17.5. Proiektua gauzatzeko epea ezingo da izan 12 hilabetetik gorakoa, dirulaguntza ordaintzen denetik.

17.6. Gasteizko Udalak urtean, gehienez ere, egingo duen ekarpena: 70.000,00 euro.

17.7. Nahikoa finantzaketa. Lehendik onetsitako finantzaketen —hitzartutako ekarpen balioztatuak barne— eta Gasteizko Udalari eskatutako dirulaguntzaren baturak, gutxienez, proiektuaren kostu osoaren ehuneko 85 izan beharko du.

17.8. Aurkeztutako proiektua gauzatzeko epea ezingo zaio gainjarri 2018ko deialdiko GE atalean diruz lagundu eta proiektukide berarekin egin den proiektu batenari, salbu eta proiektuaren helburua argi eta garbi harenetik bereizita badago.

17.9. Informazioa eta sentsibilizazioa Gasteizen. Gutxienez hiriko kolektibo bati zuzendutako sentsibilizazio- eta informazio-ekintzen programazioa barne hartu beharko du proiektuak.

17.10. Segimendua eta ebaluazioa. Proiektu orok jarraipen- eta ebaluazio-sistema bat eduki beharko du zehaztuta eta programatuta. Eskatzaileak proposatzen badio, proiektuaren ardura duen entitateak programatutako ebaluazio-jardueretan parte hartu ahal izango du Gasteizko Udalak.

18. GE ataleko lehentasunak

18.1. Entitate eskatzaileaz gain Gasteizko beste entitate batzuen edo hiriko pertsonen partaidetza aktiboa duten proiektuak.

18.2. Aurreko deialdietako GE atalean dirulaguntza jaso zuten entitateek egiten duten “Giza eskubideek ez dute mugarik” kanpainan elkarlanean aritzeko prestutasuna adierazten duten proiektuak.

19. GE atalaren kontura ordain daitezkeen gastuak

19.1. Hauei aurre egin ahalko zaie dirulaguntzaren kontura:

a. Biktimak babestu eta artatzeko ekintzetatik sortutako gastuak.

b. Langile lokalei ordaintzea.

c. Gasteizko informazio- eta sentsibilizazio-programako gastuak, zeinen artean sartu ahal izango baitira proiektua gauzatzearekin zuzenean zerikusia duten pertsonak Gasteizera egindako bisitei dagozkien gastuak, atzerriratuenak izan ezik, baita proiektuaren garapena eta aurrerapeanak islatzen dituen ikus-entzunezko materiala lortzeko berekin dakartzan kostuak ere.

d. Estu-estu giza eskubideen urraketa biktima diren pertsonak babesteko edo horiei laguntzeko ez diren jardueretatik sortzen diren gastuek ezingo dute gainditu eskatutako dirulaguntzaren ehuneko 20; esaterako:

– prestakuntza-jardueren gastuak: giza eskubideak, sentsibilizazioa...

– sareak eratzea eta horien funtzionamendua,

– politikan eragiten duten ekintzak,

– sentsibilizazio-kanpainak,

– azterlan eta ikerketak,

– egiturak sortzea,

– bulego-hornikuntza eta abar.

19.2. Dirulaguntzaren kontura ezingo dira lursailak edo ondasun higiezinak erosi.

20. GE ataleko proiektuak balioesteko irizpideak

20.1. Oinarrien 5. eranskinean biltzen dira GE ataleko balioespen-irizpideak.

20.2. Giza eskubideak babesteko proiektua eta gasteiztarrei zuzendutako informazio- eta sentsibilizazio-jardueren proposamena bereiz balioetsiko dira, zein bere aldetik.

20.3. Bi atal horietan lortzen dena batzetik ateratzen dena izango da proiektuaren balorazio globala —proiektuaren balio osoaren ehuneko 80 tokian tokiko babes-ekintzen baloraziotik aterako da, eta ehuneko 20, berriz, Gasteizen egitekoak diren informazio- eta sentsibilizazio-jardueren baloraziotik—.

20.4. Ataletako bakoitzean gutxienez puntuazioaren ehuneko 50 lortzen ez duten eskabideak ezetsi egingo dira.

PT atala: Proiektu txikiak.

21. PT atalaren xedea

Proiektu txikietarako dirulaguntzak emango dira PT atal honetan, entitate eskatzaileak eta horren kolektiboak harreman oso zuzena dutelarik, Gasteiztik, dena delako proiektuarekin.

22. Proiektuen ezaugarriak

22.1. Honelako esku-hartzeak ahalbidetzeko bereziki egokitzat jotzen da PT atala: ekipamendu- nahiz eraikuntza-ekintza puntualak, prestakuntza-ekintza puntualak, entitate eskatzaileak lehendik lagundu dituen proiektuak behar bezala gara daitezen beharrezko diren ekintza osagarriak, eta garapenerako lankidetzaren arloan esperientzia mugatua duten entitateen esku-hartzeak.

22.2. Modu positiboan balioetsiko da esperientzia handirik ez duten kolektiboek proposatzen dituzten ekintzek esperientzia handiagoa duten GGKEen aholkularitza edo laguntza izatea.

22.3. Identifikazioa eta formulazioa. Helburuak, emaitzak eta proiektua gauzatzeko beharrezkotzat jotzen diren baliabideak eta jarduerak zehazten dituen azalpen soila. Ez da beharrezkoa marko logikoa edo antzeko metodologia normalizatuak erabiltzea.

22.4. Finantza-programazioa: aurrekontu soila.

23. PT ataleko proiektuek bete beharreko baldintzak

Hauek izango dira PT atalean aurkezten diren proiektuek bete beharko dituzten baldintzak:

23.1. Baztertu egingo dira deialdi honen 3. puntuan galdatzen diren betebeharrak betetzen ez dituzten proiektuak.

23.2. Emaitza-mota. Proiektuaren emaitzek begien bistakoak edo praktikoak izan beharko dute.

23.3. Bideragarritasuna. Behar izanez gero, bideragarritasun tekniko eta ekonomikoaren azterlanen dokumentazioa aurkeztu beharko da, eta landu dituztenen esperientziaren ingurukoa.

23.4. Proiektua gauzatu eta dirulaguntza justifikatzeko epea, gehienez ere sei hilabetekoa izango da, dirulaguntza ordaintzen denetik.

23.5. Gasteizko Udalak gehienez ere egingo duen ekarpena. Atal honetan ematen diren dirulaguntzek ezingo dute gainditu 20.000,00 euroko zenbatekoa, proiektu bakoitzeko, aldez aurretik erakunde publiko batek garapenerako lankidetzako proiektu baterako emandako gutxienez dirulaguntza bat kudeatu duten entitateen kasuan eta eskabidea betebeharrak betetzen duen entitate batekin batera aurkezten dutenen kasuan. Zirkunstantzia horiek egokitu ezean, dirulaguntzak ezingo du gainditu 10.000,00 euroko kopurua.

23.6. Nahikoa finantzaketa. Lehendik onetsitako finantzaketen —hitzartutako ekarpen baliotatuak barne— eta Gasteizko Udalari eskatutako dirulaguntzaren baturak, gutxienez, proiektuaren kostu osoaren ehuneko 75 izan beharko du.

23.7. Proiektuarekiko, populazioarekiko edo herriarekiko harremana. Gasteizko kolektibo batek, dela eskabidea egiten duen entitatekoa, dela proiektuak zuzenean inplikaturako entitatekoa, harreman zuzena eta jarraitua eduki beharko du, eta agiri bidez egiaztatu beharko da hori.

23.8. Debeku orokorra. PT atalera ezingo dira aurkeztu ez deialdi honen beste atal batzuetan aurkezten diren, ez 2016ko hainbat urterako lankidetzaren proiektuetarako deialdian dirulaguntza jaso zuten proiektuak osatzeko eskabiderik, ezta PT atalean aurkeztutakoaren gauzatze-aldia osorik edo partez estaltzen duen dirulaguntza lehendik beste erakunderen batengandik jaso duenik ere.

23.9. Segimendua eta ebaluazioa. Proiektu orok jarraipen- eta ebaluazio-sistema bat eduki beharko du zehaztuta eta programatuta. Eskatzaileak proposatzen badio, proiektuaren arduraren duen entitateak programaturako ebaluazio-jardueretan parte hartu ahal izango du Gasteizko Udalak.

24. PT atalean diruz lagundu ahal izango diren gastuak

24.1. Honelako gastuak estaltzeko baliatu ahal izango dira ematen diren dirulaguntzak: higiezin edo azpiegiturak eraiki edo konpontzea; materialak, hornigaiak eta tresneria nahiz beste ekoizpen-aktibo batzuk erosi eta garraiatzea; trebakuntza eta prestakuntza, eta GGKE eskatzailearen nahiz proiektukide lokalaren zeharkako kostu edo funtzionamendu-kostuak.

24.2. Aparteko kasuetan bakarrik baliatu ahal izango da dirulaguntza lur sailak edo bestelako ondasun higiezinak erosteko; halakoetan, gainera, argi eta garbi egiaztatu beharko da, dokumentu bidez, haiek erakunde publiko edo komunitario baten esku geldituko direla, eta gutxienez hamabost urtez erabiliko dela proiektuaren helburuetarako.

24.3. Gasteizen sentsibilizazio-jarduerak egiteko sortutako gastuak barne hartu ahalko dituzte dirulaguntzek; bereziki, proiektuaren garapena eta aurrerapenak islatzen dituen ikus-entzunezko materiala lortzeko berekin dakartzan kostuak, gehienez ehuneko 3 arte.

24.4. Dirulaguntzek ezingo dute barne hartu proiektuaren ebaluaziorako partidarik.

25. PT ataleko proiektuak balioesteko irizpideak

25.1. Oinarrien 6. eranskinean biltzen dira PT ataleko balioespen-irizpideak.

Alderdi orokorrak.

26. Jarduera publikoetarako espazioak

26.1. Nornahi iristeko moduko lokal edo espazioetan egin beharko dira Gasteizen egiten dituen jarduera publikoak, dirulaguntza jasotzekotan, Irigarritasuna Sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legean —1997ko abenduaren 24ko EHAA— adierazten den moduan.

26.2. Udal zentroetako espazioak erreserbatzen badira —eta lekuri baldin badago—, 7.11 ordenantzaren —Kultur eta biltzar ekipamenduak, ekipamendu polifuntzionalak eta gizar-te-etxeak erabiltzeagatik ordaindu beharreko tasak— 4 bis artikuluan aurreikusten den salbuespena aplikatuko da, dirulaguntza jaso duen jardueraren bat egiteko bada, eta horretarako ezarritako prozeduraren arabera. Nolanahi ere, aretoak edo baliabide teknikoak direla eta sor litezkeen gastuak proiektuaren aurrekontuan jaso beharko dira, diruz lagundu daitezkeen gastuak izango badira ere.

27. Dirulaguntzari egotz dakizkiokeen zuzeneko kostuak

27.1. Zuzeneko jarduera dela medio proiektuaren emaitza bat, produktu bat edo zerbitzu bat lortzearekin funtsezko erlazioa duten gastuak dira zuzeneko kostuak. Honako hauekin zuzenean

zerikusia duten kostuak dira: lursailak eta eraikinak erostea; eraikinak eraiki eta eraberritzea; tresneria, materialak eta hornikuntzak; giza baliabideak, eta trebatu eta prestatzea.

- a. Identifikagarriak,
- b. osorik edo partez proiektu jakin bati zuzenean egotzi dakizkiokeenak,
- c. eta jarduera zehatzarekin duten lotura egiaztatzeko aukera ematen dutenak.

27.2. Lanaldi oso nahiz partzialez proiektuko jarduerari lotutako zuzeneko zeregin eta egin-kizunak egiten dituzten langile lokalen zuzeneko kostua diruz lagundu ahal izango da, aurreko puntuan adierazi bezala. Langile lokaltzat jo ahal izatekotan, proiektua gauzatzen den herrialdeko legediaren arabera kontratua izan beharko dute. Dirulaguntza jaso duen entitateak kontratatuta egon litezke, edo eskabidea egiten duen partzuergoko beste edozeinek, edo bazkide lokalen batek. Zeharkako kostuetan edo funtzionamendu-kostu orokorretan (ikus 28. atala) sartzen diren zereginei atxikitako langile lokalak aurrekontu-kapitulu horretan sartu beharko dira, eta ez zuzeneko kostuenean.

27.3. UK, US eta GE ataletako dirulaguntzek lankidetzan diharduten atzerriratuen gastuak ere estali ahal izango dituzte, baldin eta proiektuaren berariazko jarduerak gauzatzen badihardute. Atal hori, ordea, ezingo da izan dirulaguntzaren ehuneko 20tik gorakoa. Kontzeptu horretara bideratzen den dirulaguntzaren ehunekoa zehazteko, honako hauek hartuko dira aintzat: atzerriratuak adituak diren ala ez, zein zeregin hartzen dituzten beren gain eta proiektuan duten benetako dedikazioa. PT ataleko dirulaguntzek ez dituzte barne hartuko langile atzerriratuen gastuak.

27.4. Zuzeneko kostuek ez dituzte estaltzen proiektua gauzatzeko beharrezko diren gastu guztiak. Izan ere, badira proiektua garatzeko ezinbesteko diren beste gastu batzuk, proiektuko jarduerekin zuzeneko erlaziorik ez dutenak, zeharkako kostutzat edo entitatearen kostu orokortzat jo beharrekoak.

27.5. Bitartekoak jarri beharko dira kostuak egokienak izan daitezen, prezioari eta kalitateari dagokienez.

28. Dirulaguntzari egotz dakizkiokeen zeharkako kostuak

28.1. Proiektuaren administrazioari dagozkion zeharkako gastu edo funtzionamendu-gastu orokorrak honela definitzen dira: diruz lagundutako jarduerari zuzenean egotzi ezin zaizkion gastuak izan arren entitate onuradunak hura burutzeko ezinbesteko dituen gastu orokor eta administratiboan zati proportzionala —entitatearen beraren mantentze-gastuak (energia elektrikoa, telefonoa, gasa, ura, alokairua, garbiketa eta aholkularitza), informatika, mantentze-lan orokorrak, segurtasuna eta ikuskapena, kontabilitatea, koordinazioa (salbuespen gisa, eta zereginak eta proiektuko benetako dedikazioa justifikatu ondoren, zuzeneko kostutzat onartu ahal izango dute gastua Garapenean Laguntzeko Zerbitzuko langileek)—.

28.2. Oro har onartzen diren kontabilitate-printzipio eta -arauei jarraiki zentzuzko den neurrian egotzi beharko dizkio kostu horiek diruz lagundutako jarduerari entitate onuradunak, eta, betiere, kostu horiek jarduera burutzen deneko aldiari dagozkion neurrian.

28.3. UK, US eta GE ataletan, Udalaren dirulaguntzari egozten zaizkion zeharkako kostuak ezingo dira izan dirulaguntzaren ehuneko 14tik gorakoak, kontuan izanik:

- a. Bazkide lokalaren zeharkako gastu edo funtzionamendu-gastuetarako, gehienez ere laguntzaren ehuneko 7 baliatu ahal izango da.
- b. Entitate eskatzailearen zeharkako gastuetarako gehienez ere laguntzaren ehuneko 7 baliatu ahal izango da.
- c. Proiektuaren jarraipen-sistemaren konplexutasunaren arabera finkatuko dira biak.

28.4. US atalean —proiektu teknikoak lantzen badira— eta PT atalean, Udalaren dirulaguntzari egozten zaizkion zeharkako kostuak ezingo dira izan haren ehuneko 7tik gorakoak. Proiektukide lokalak proiektuaren administrazio-gastuen parte bat bere gain hartzen badu, zehaztu egingo da.

29. Eskabideak noiz aurkeztu behar diren

29.1. Epea: deialdiaren laburpena ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik hasi eta:

- a. 2019ko martxoaren 29ra arte, GE ataleko eskabideak,
- b. 2019ko apirilaren 12ra arte, US ataleko eskabideak,
- c. 2019ko ekainaren 14ra arte, PT ataleko eskabideak,
- d. 2019ko irailaren 26ra arte, UK ataleko eskabideak.

29.2. Garaiz eta behar bezala aurkezten diren eskabideak bakarrik onartuko dira. Udalaren webgunean —www.vitoria-gasteiz.org/dirulaguntzak— eskuragarri dagoen eredia baliatuz aurkeztu beharko da eskabidea.

30. Dirulaguntzak emateko eta proiektuak balioesteko prozedura

30.1. Norgehiagoka baliatuko da dirulaguntzak emateko prozedura gisa.

30.2. Udaleko Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak ebaluatuko ditu proiektuak, eta, behar izanez gero, kanpoko erakunde espezializaturen baten aholkularitza eskatu ahal izango du.

30.3. Proiektuen bideragarritasun teknikoa neurtzeko —eta horien kalitatea eta efikazia hobetzeko—, udal zerbitzu tekniko eskudunen laguntza eskatuko ahal izango da, behar izanez gero.

30.4. US ataleko proiektuen kasuan, nahitaezkoa izango da AMVISAREN txosten teknikoa edukitzea.

30.5. Proiektuak aztertu ondoren, eta behin betiko puntuazioa esleitu aurretik, elkarrizketa egingo da eskabidea egin duten entitateekin, informazio zabalagoa ematerik izan dezaten.

30.6. 2. eranskinean ageri den baremazioaren arabera balioetsiko dira UK ataleko proposamenak, 3. eta 4. eranskinetako arabera US atalekoak, 5. eranskinekoaren arabera GE atalekoak eta 6. eranskinekoaren arabera PT atalekoak.

30.7. Eranskinetan izartxo batez (*) markatuta ageri diren alderdiak betebehartzat jotzen dira; beraz, horietakoren batean zero puntu ateraz gero, proiektua baztertu egingo da.

30.8. Baldin eta irizpideari “bidezkoa bada” oharra gehitu bazaio, bere proiektuaren kasuan beharrezkotzat ez dituela jotzen zehaztu eta argudiatu ahal izango du entitate eskatzaileak.

30.9. Horrez gain, eskatzaileak uste badu —edozein arrazoi dela medio— aurkezten duen proiektuaren kasuan ez dela bidezko adierazitako irizpideetakoren bat edo beste aintzat hartzea, argudiatu egin beharko du, kontuan har ez daitezkeen.

30.10. Eskatzailearen argudioak kontuan hartu eta balioespen teknikoan irizpide jakin bat bidezkotzat jotzen ez bada, ez da aintzat hartuko horri dagokion puntuazioa. Horrenbestez, bidezkotzat jotzen diren irizpideak aintzat harturik gehienez eskura daitezkeen puntuen gainean lortzen den ehunekoak izango da proiektuaren puntuazioa, kasu guztietan.

30.11. UK, US, GE eta PT ataletan, Afrikan egitekoak diren proiektuei 1,05eko gehikuntza-koeffizientea aplikatuko zaie baremazioan, hau da, baremazio-taularen arabera lortutako puntuazioa bider 1,05 egingo da.

30.12. Baldin eta proiektu batek lortutako puntuazioa ehuneko 50etik beherakoa bada, ez du dirulaguntzarik jasoko.

31. Dirulaguntza jasotzen duen entitateak zein konpromiso hartu beharko dituen

31.1. Aurreko guztiari dagokionez —proiektuaren publizitate-betebeharrak eta erabili beharreko hizkuntzak, hizkuntzaren eta irudien erabilera ez sexista, berriro formulatzea, uko egitea, justifikatzea, publizitatea, proiektua aldatzea, beste dirulaguntza batzuekiko bateragarritasuna—, oinarri orokorretan aurreikusitakoa bete beharko du dirulaguntza jasotzen duen erakundeak, eta, horrez gain, baita ondoren adierazten dena ere.

31.2. Dirulaguntza jasotzen duen organizazioak —legezko ordezkariaren bitartez— protokolo bat sinatu beharko du Gasteizko Udalarekin, gehienez hilabeteko epean, jakinarazpenaren egunetik, eta bertan jasota utziko da zertarako den dirulaguntza zehazki, baita laguntza jaso duen ekintzaren jarraipena egiteko bitartekoen zer-nolakoak eta maiztasuna ere.

31.3. Protokoloa izenpetzen duelarik, konpromiso hauek hartuko ditu, bereziki, dirulaguntza jaso duen organizazioak:

a. Proiektuan parte hartzen duten pertsonen eta aktore lokalei Gasteizko Udalak emandako dirulaguntzari esker lortutako funtsen jatorriaren, zenbatekoaren eta xedearen gaineko informazioa ematea.

b. Diruz lagundutako proiektua gauzatzeari 2019ko urtarrilaren 1az gero ekitea, eta beranduenez bi hilabeteko epean, dirulaguntza ordaintzen zaionetik.

c. Proiektua benetan zein egunetan hasi den gauzatzen Udalarari jakinaraztea.

d. Herritarrei proiektuaren bilakaerari buruzko informazioa helarazten laguntzea Udalarari eta Garapenean Laguntzeko elkarguneari —baterako informazio- eta sentsibilizazio-jardueretan parte hartzeko eskatu ahal izango die Udalak dirulaguntza jaso duten entitateei—. Dirulaguntzak barne hartzen duen sentsibilizazio-partidaren kontura joan ahal izango dira jarduera horietan parte hartzearen kostuak.

31.4. Aurrekontu-kapituluren batean dirulaguntzaren zenbateko osoaren ehuneko 7 edo gehiago gora edo behera egitea dakarren edozein aldakuntza egokitzen delarik —edo dena delako kapituluaren ehuneko 50eko edo gehiagoko aldakuntza—, aurrekontuaren funtsezko aldakuntzatzat joko da, eta, beraz, eskabide formala aurkeztu beharko dio dirulaguntza jaso duen entitateak Garapenean Laguntzeko Zerbitzuari, idatziz, eta aldakuntzaren arrazoiak bertan azaldu. Gauzatu aurretik, Garapenean Laguntzeko Zerbitzuaren berariazko baimena jaso beharko du aldakuntzak.

31.5. Aurreko atalean —31.4.— deskribatutako aurrekontu-desbideratzearen ondoriozko funtsezko aldakuntzaz gain, eskabide formal bat ere aurkeztu beharko zaio Garapenean Laguntzeko Zerbitzuari idatziz, aldakuntza argudiatzen delarik, kasu hauetan:

a. Proiektuaren kokalekuaren edozein aldaketa.

b. Bazkide lokalaren aldaketa.

c. Onetsitako gauzatze-epearen aldaketa.

d. Helburu eta emaitzen mailako aldaketak.

31.6. Betebehar horiek ez betetzeak dirulaguntza osoa edo zati bat itzuli beharra ekarri ahal izango du berekin.

32. Dirulaguntza ordaintzea:

32.1. Justifikatu aurretik ordainduko da dirulaguntza, ordainketa aurreratu gisa. Ordainketa bakar batean egingo da, esleipenaren ebazpena eman eta dena delako hitzarmena sinatu ondoren, eta ez da beharrezkoa izango inongo bermerik jartzea.

33. Diruz lagundutako ekintzen jarraipena

33.1. UK, US (azpiegiturak) eta GE ataletan, hauek aurkeztu beharko ditu dirulaguntza jasotzen duen entitateak:

a. Lehen txosten bat —narrazio hutsa izan ahalko da—, non, dirulaguntza ematen denetik sei hilabetera, ekintza ordura arte nola garatu den azalduko baita.

b. Bukaerako txostena —narrazioa eta azalpen ekonomikoa—, zein gehienez hiru hilabeteko epean aurkeztu beharko baita, ekintza bukatzen delarik. Txosten hori aurrekoari gehitu beharko zaio, lehenaren edukia mantendu eta bigarrenari dagokiona gehituta, eta bi zatiak erraz bereizteko modua egin beharko da, tipografia, kolorea edo beste dela medio.

33.2. PT atalean —baita US atalean ere, proiektu teknikoak egiteko eskatu bada dirulaguntza—, bukaerako txostena bakarrik aurkeztu beharko da —narrazioa eta finantzen azalpena—, hiru hilabeteko epean, ekintza bukatzen denetik.

33.3. Dirulaguntza jasotzen duen entitatea gutxienez urtean behin bilduko da Garapenean Laguntzeko Zerbitzuarekin, proiektuaren bilakaera balioesteko.

33.4. Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak edo Udaleko teknikari espezializatuek proiektua jarraitzeko bisitak egin ahalko dituzte; aldez aurretik horien berri eman beharko zaie diruz lagundutako entitateei.

34. Dirulaguntzak justifikatzea

34.1. Dirulaguntza jasotzen duten entitateek justifikatu egin beharko dute, oinarri orokorretan ezarritakoaren ildotik —ikus “Dirulaguntzak justifikatzea” puntua—.

34.2. Horrenbestez, Nazioarteko lankidetzaren esparruko dirulaguntza eta laguntzak arautzen dituen ekainaren 16ko 794/2010 Errege Dekretua da garapen-bidean dauden herrialdeetan egindako ekintzak justifikatzeko arau-markoa, eta, zehazki, II. tituluko —Publikotasun- eta konkurrentzia-printzipioen mende dauden garapenerako nazioarteko lankidetzako dirulaguntza eta laguntzak— 3. atala —Dirulaguntzak eta laguntzak justifikatzea—.

34.3. Gasteizen egitekoak diren sentsibilizazio-jarduerei dagozkien gastuen justifikazioa oinarri orokorretan aurreikusitakoaren arabera egingo da.

34.4. Txosten narratiboak eta justifikazio-oroitidazkiak Gasteizko Udaleko Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak finkatutako ereduari jarraiki egin beharko dira, eta euskarri digitalean. Zati narratiboa testu-prozesadorearen formatuan aurkeztu beharko da, eta zati ekonomikoa kalkulu-orriaren formatuan. Gainerako dokumentazioa edo materiala maneiatu, berrikusi eta editatzeko aukera ematen duen formatu digitalean aurkeztu beharko da, zer den ere —irudiak, bideoak, grabazioak, planoak...— Digitalizatzea ezinezkoa bada, euskarri egokian aurkeztu beharko dira.

34.5. Deialdi honetan ematen diren dirulaguntzak justifikatzeko 7. eta 8. eranskinak baliatu beharko dira, zeinek Gasteizko Udalaren 2019ko dirulaguntza-deialdiak arautzeko oinarri orokorreko 1-J-tik 5-J-ra arteko eranskinak ordeztzen baitituzte.

34.6. Bidaia- eta dieta-gastuak justifikatzeko hau baliatu beharko da:

a. edo Gasteizko Udalaren 2019ko dirulaguntza-deialdiak arautzeko oinarri orokorreko 6. eranskineko eredu,

b. edo bidaiak eta dietak likidatzeko beste edozein agiri-eredu, 6. eranskin horretan jasotzen diren datuak eta informazioa biltzen duelarik, kontuan izanik deklaritzen den gastuaren egiaztagiriak erantsi behar zaizkiola —fakturak, billeteak, garraio-txartelak eta abar—, kilometraje-gastuak salbu.

35. Deialdiko soberako zenbatekoa —izanez gero—

35.1. Baldin eta —deialdiko atal guztiak ebatzen direlarik— 0162 2391 4 8200 “Lankidetzarako dirulaguntzak” partidan erabilgarri dagoen zenbatekoa agortzen ez bada, soberakina Garape-nean Laguntzeko Zerbitzuaren aurrekontuko IV. kapituluko beste partida bati esleitzeko izapideak egingo dira —Larrialdietarako Arabako Funtzari lehentasuna emanez—, aurrekontu-aldaketa egiteko dosierraren bitartez.

Eranskinak

1. eranskina: Gasteizen egitura, gaitasuna eta jarduerak izateari dagokion baldintza.

Irizpideak beteko badira, gutxienez jotzen diren balio horietara iritsi beharko da.

“Egiaztzeko moduak” zutabearen adierazten diren agirietakoren bat aurkeztuz egiaztatu beharko da hori.

Irizpidea betetzen bada, puntu bat lortuko da. Irizpidea betetzen ez bada —edo egiaztagiririk aurkezten ez bada—, ez da punturik emango.

Baztertu egingo dira gutxienez sei puntu lortzen ez dituzten eskabideak US atakean, bost puntu lortzen ez dituztenak UK eta GE atalean, eta lau puntu lortzen ez dituztenak PT atalean, egiturari, gaitasunari eta Gasteizen jarduteari dagokion gutxieneko baldintzak ez dituztela betetzen ulertuko baita.

Irizpideak	Gutxienez	Unitatea	Egiaztzeko moduak
Eskabidea egiten duen entitateak Gasteizen du egoitza nagusia. Partzuergoek aurkeztutako eskabideen kasuan, hura eratzen duten entitateetako gutxienez batek bete behar du irizpidea, eta eskabidea egiten duen entitatearen puntuazioari gehituko zaio.	betetzen da		Entitatearen estatutuak, edo Eusko Jaurilaritzaren elkartearen erregistroan izan emanda egotea.
Funts propioak (kuotak eta dohaintzak), 2018an probintzian sortuak	6.000,00	euro	Auditoria, balantze ekonomikoa edo, horietan datu bereziak jaso ezean, horiei dagokien ziurtagiria, diruzainak izenpetuta eta adierazitako kontabilitate-agiri horietakoren bati erantsita.
Gasteizko bulegotik proiektuak kudeatzeko gaitasuna, eta esperientzia.	2	azken bi urteetan kudeatutako proiektuak	Entitatearen ziurtagiria, non zehazten diren azken bi urteetan Gasteizko bulegotik kudeatu diren proiektuak, horien diru-kopuruak, proiektuak finantzatzen kide izan dituzten entitateak eta arduradunak, profesionalak nahiz boluntarioak izan.
Pertsonal teknikoa hirian, 2018/01/01etik.	erdia	kontratututako lanaldia	Gizarte Segurantzako kotizazioaren ziurtagiriak, non ageri den kontratatutako pertsona horiek Araban ari direla kotizatzen.
Boluntarioak hirian, 2018/01/01etik.	5	boluntario	Eusko Jaurilaritzaren Boluntariotzako Erakundearen Errolda Orokorrean egindako izen ematea, Araba Lurralde Historikoan, edo boluntarioen aseguruia ordaindu izanaren egiaztagiria, non Araban aseguratu den boluntario-kopurua agertuko baita.
Entitateak Hegoaldeko herrialdeetan 2018/01/01az geroztik burutu dituen proiektuetan Gasteizko boluntarioek lekuan bertan eman duten laguntza.	1	persona, hileko	Entitateak edo boluntarioak izenpetutako txosten laburra (orri bat edo bi), non profil pertsonala, laguntza eman zuen proiektua, tokia, aldia, zereginak, esperientziaren balorazioa eta beste azalduko baitira.
Hirian 2018/01/01az geroztik egin diren sentsibilizazio-jarduerak publikoak.	3	jarduera publiko	Dokumentazio grafikoa, zabalkunde-materiala, galdetegiak, antolatzaileen egiaztagiriak... Hedabideetan artikulak edo elkarrizketak agertu edo argitaratzea ez da jardueratzat joko, ezta informazio-buletinen zabalkundeak eta erakundearen publizitate-produktuak banatzea ere. Jarduera publiko horietako batek behintzat Gasteizko Udalaren dirulaguntzarik gabe egina izan beharko du.
2018/01/01az geroztik materialak bildu eta bidaltzeko nahiz bidezko merkataritzako produktuak saltzeko egindako kanpaina propioak	1	burututako jarduera	Dokumentazio grafikoa, zabalkunde-materiala, galdetegiak, antolatzaileen egiaztagiriak, emaleen eskutitzak...

2018/01/01eko urtarrilaren 1az geroztik hezkuntza formalaren, ez formalaren nahiz informala eremuan hirian burututako jarduerak.	15	jarduera-orduak	Hezkuntza-jardueretan parte hartu duten hezkuntza formal, ez formal nahiz informaleko entitateen ziurtagiria, non argi jaso beharko baita jarduera horri eskainitako orduen kopurua.
2018/01/01az geroztik hirian jarduerak burutu dituzten sare edo partzuergoen kanpaina edo programa egituratueta izandako partaidetza.	15	jarduera-orduak	Sare edo partzuergoaren buru den entitatearen ziurtagiria, eskabidea egiten duen entitateak sare edo partzuergo horretan parte hartu duen orduen kopurua zehazten duena.

2. eranskina: UK ataleko —urteko proiektu kateatuak— baremazio-taula.

Izartxo (*) batez markatutako kontzeptuetan baldintza bete ez edo zero puntu lortuz gero, proiektua lehiaketatik kanpo geldituko da.

Proiektuak lehenesteko faktoreak (puntuazioa bider kopuru hori egingo da):	
Afrikan bideratzeko bada	1,05
2018an diruz lagundutako proiektuen jarraitutasuna	1,10

Honi dagokionez:		Gehienez	
		100	100
1.	Parte hartuko duen populazioa		5
	Nahikoa informazioa (kuantifikatzea, sexuaren araberako datuak, kokalekua)	(*)	
	Populazioaren baldintzak eta egoera (ahultasun-egoera, premia, antolakuntza)	5	
2.	Aktoreak eta harremanak		11
	Esperientziaren eta lankidetzaren arloko betebeharrak	(*)	
	Eskatzailea, proiektukidea eta populazioarekiko harremana	3	
	Beste aktore sozial batzuk	4	
	Erakunde publiko lokalek jokatzen duten papera	4	
3.	Proiektua		42
	Nahikoa informazioa, koherentzia eta bideragarritasuna	(*)	
	Lehen urteko gauzatze-aldian aurreikusitako aurrerapenak egin izana	(*)	
	Testuingurua eta identifikazioa	6	
	Ikuspegia eta helburu sozialak	4	
	Estrategiak eta metodologia	8	
	Proiektuaren osagai tekniko eta teknologikoak (bidezko bada)	8	
	Kalitate teknikoa (plangintza, kudeaketa)	6	
	Giza baliabideak: esperientzia eta egokitasuna	6	
	Eskatutako agiriak aurkeztea eta betekizunak betetzea, zuzenketarik egin beharrik gabe.	4	
4.	Giza eskubideen babesa		
	Babesteko nahikoa ekintza barne hartzea	(*)	
5.	Generoa		14
	Generoaren arloko gutxieneko betebeharrak:	(*)	
	Emakumeak ahalduntzeko eta berdintasunerako ekintza eta neurriak	8	
	Genero-ikuspegiaren zeharkakotasuna, proiektuan	6	
6.	Proiektuaren aurrekontu orokorra		12
	Aurrekontuaren eta finantzaketaren arloko betebeharrak	(*)	
	Zehaztasuna eta egokitasuna	12	
7.	Iraunkortasuna (bidezko bada)		6
	Nahikoa berme, proiektua bukatu ondoren zerbitzu edo ekimenak jarraipena izango duela (bidezko bada)	(*)	
	Jarraitutasuna edo iraunkortasuna bermatzeko neurria	6	
8.	Jarraipena		
	Jarraipenaren bermea	(*)	
9.	Gasteizetikiko lotura eta eragina		10
	Kolektiboen inplikazioa eta informazioa	(*)	
	Irudiak eta informazio- eta komunikazio-baliabideak eskuragarri jartzea	(*)	
	Migratzaileen kolektiboen eta GGKEaren arteko lankidetzatza (bidezko bada)	5	
	Topaketak, trukea eta elkartasuna	5	

3. eranskina: US ataleko —ura eta saneamendua— baremazio-taula – Azpiegitura- eta zerbitzu-proiektuak.

Izartxo (*) batez markatutako kontzeptuetan baldintza bete ez edo zero puntu lortuz gero, proiektua lehiaketatik kanpo geldituko da.

Proiektuak lehenesteko faktoreak (puntuazioa bider kopuru hori egingo da):	
Afrikan bideratzekoa bada	1,05

Honi dagokionez:		Gehienez	
		100	100
1.	Parte hartuko duen populazioa		6
	Nahikoa informazioa (kuantifikatzea, sexuaren araberako datuak, kokalekua)	(*)	
	Populazioaren baldintzak eta egoera (ahultasun-egoera, premia, antolakuntza)	6	
2.	Aktoreak eta harremanak		12
	Esperientziaren eta lankidetzaren arloko betebeharrak	(*)	
	Eskatzailea, proiektukidea eta populazioarekiko harremana	4	
	Migratzaileen kolektiboan eta GGKEaren arteko lankidetzak	2	
	Beste aktore sozial batzuk	4	
	Erakunde publiko lokalek jokatzen duten papera	2	
3.	Proiektua		26
	Nahikoa informazioa, koherentzia eta bideragarritasuna	(*)	
	Testuingurua eta identifikazioa	6	
	Ikuspegiak eta helburu sozialak	4	
	Estrategiak eta metodologia	6	
	Kalitate teknikoak (plangintza, kudeaketa)	6	
	Eskatutako agiriak aurkeztea eta betekizunak betetzea, zuzenketarik egin beharrik gabe.	4	
4.	Aurkeztutako proiektu teknikoak		28
	Baldintzatzaileei, baliabideei eta behar teknikoetako buruzko informazioa *	(*)	
	Baliabide hidrikoaren eskuragarritasuna (kopurua eta kalitatea)	(*)	4
	Proiektu teknikoaren edo azterlana egiteko baldintza-agiriaren bideragarritasuna eta kalitatea	(*)	8
	Testuingurua eta mantentzeko aukeretara egokitutako teknologiak erabiltzea	(*)	4
	Obrak edo azterlana egingo duen entitatea: esperientzia, espezializazioa eta egokitasuna	4	
	Abian jarritako sistemaren kudeaketa	4	
	Proiektu teknikoaren aurrekontuaren zehaztasuna eta egokitasuna	4	
5.	Generoa		8
	Generoaren arloko gutxieneko betebeharrak:	(*)	
	Emakumeak ahalduzko eta berdintasunerako ekintza eta neurriak	4	
	Genero-ikuspegiaren zeharkakotasuna, proiektuan	4	
6.	Proiektuaren aurrekontu orokorra		6
	Aurrekontuaren eta finantzaketaren arloko betebeharrak	(*)	
	Zehaztasuna eta egokitasuna	6	
7.	Iraungarritasuna		4
	Nahikoa berme, proiektua bukatu ondoren zerbitzuak jarraipena izango duela	(*)	
	Jarraitutasuna edo iraunkortasuna bermatzeko neurria	4	
8.	Jarraipena		
	Jarraipenaren bermea	(*)	
9.	Gasteizeko lotura eta eragina		10
	Kolektiboan inplikazioa eta informazioa	(*)	
	Aurrekariak; Gasteiztik lehendik izandako harremanak	4	
	Topaketak, trukea eta elkartasuna	4	
	Informazio- eta komunikazio-baliabideen kalitatea	2	

4. eranskina: US ataleko –ura eta saneamendua– baremazio-taula – Proiektu teknikoa egitea.

Izartxo (*) batez markatutako kontzeptuetan baldintza bete ez edo zero puntu lortuz gero, proiektua lehiaketatik kanpo geldituko da.

Proiektuak lehenesteko faktoreak (puntuazioa bider kopuru hori egingo da):	
Afrikar bideratzekoa bada	1,05

Honi dagokionez:		Gehienez	
		25	25
1.	Parte hartuko duen populazioa		2
	Nahikoa informazioa (kuantifikatzea, sexuaren araberrako datuak, kokalekua)	(*)	
	Populazioaren baldintzak eta egoera (ahultasun-egoera, premia, antolakuntza)		2
2.	Aktoreak eta harremanak		4
	Esperientziaren eta lankidetzaren arloko betebeharrak	(*)	
	Eskatzailera, proiektukidea eta populazioarekiko harremana		2
	Migratzaileen kolektiboen eta GGKEaren arteko lankidetzak		1
	Erakunde publiko lokalek jokatzen duten papera		1
3.	Proiektua		3
	Nahikoa informazioa, koherentzia eta bideragarritasuna	(*)	
	Testuingurua eta identifikazioa		1
	Kalitate teknikoa (plangintza, kudeaketa)		1
	Eskatutako agiriak aurkeztea eta betekizunak betetzea, zuzenketarik egin beharrik gabe.		1
4.	Aurkeztutako proiektu teknikoa (US)		11
	Baldintzatzaileei, baliabideei eta behar teknikoari buruzko informazioa	(*)	2
	Baliabide hidrikoaren eskuragarritasuna (kopurua eta kalitatea)		1
	Baldintza-agiriaren eta azterlana egiteko planteamenduaren bideragarritasuna eta kalitatea		4
	Testuingurura eta mantentzeko aukeretara egokitutako teknologiak erabiltzea*		2
	Lana edo azterlana egingo duen entitatea: esperientzia, espezializazioa eta egokitasuna		2
5.	Proiektuaren aurrekontu orokorra		4
	Aurrekontuaren eta finantzaketaren arloko betebeharrak	(*)	
	Zehaztasuna eta egokitasuna		4
6.	Jarraipena		
	Jarraipenaren inguruko betebeharrak	(*)	
7.	Gasteizetikiko lotura eta eragina		1
	Kolektiboen inplikazioa eta informazioa	(*)	
	Lankidetzak teknikoa, Gasteiztik		1

5. eranskina: GE ataleko –giza eskubideak babestea– baremazio-taula.

Izartxo (*) batez markatutako kontzeptuetako edozeinetako betebeharrak betetzen ez bada, proiektua lehiaketatik kanpo geldituko da.

Proiektuak lehenesteko faktoreak (puntuazioa bider kopuru hori egingo da):	
Afrikan bideratzekoa bada	1,05

Honi dagokionez:		Gehienez	
A. Babesa emateko ekintzen balorazioa		100	100
A.1. Babesa emango zaion populazioa			20
	Nahikoa informazioa (kuantifikatzea, sexuaren arabera datuak, kokalekua)	(*)	
	Osotasun fisikoa mehatxupearan duten pertsonak zuzenean babesteko edo laguntzeko ekintzen pisua eta premia		11
	Zuzenean babesaz baliatuko diren pertsonen kopurua		9
A.2. Aktoreak eta harremanak			30
	Esperientziaren eta lankidetzaren arloko betebeharrak	(*)	
	Eskatzailea, proiektukidea eta populazioarekiko harremana (esperientzia eta espezializazioa)		16
	Beste aktore lokal batzuk, edo giza eskubideetan espezializatuak (inplikazio-maila)		9
	Gasteizko pertsona edo entitateak zuzenean inplikatzeko babes ematean		5
A.3. Proiektua			30
	Nahikoa informazioa, koherentzia eta bideragarritasuna	(*)	
	Testuingurua eta identifikazioa		9
	Proiektuaren osagai juridiko edo teknikoak (bidezko bada)		4
	Kalitate teknikoak (plangintza, kudeaketa)		13
	Eskatutako agiriak aurkeztea eta betekizunak betetzea, zuzenketarik egin beharrik gabe.		4
A.4. Generoa			10
	Generoaren arloko gutxieneko betebeharrak:	(*)	
	Emakumeak eta neskek babesteko berariazko ekintza eta neurriak		5
	Genero-ikuspegiaren zeharkakotasuna, proiektuan		5
A.5. Proiektuaren aurrekontu orokorra			10
	Aurrekontuaren eta finantzaketaren arloko betebeharrak		
	Zehaztasuna eta egokitasuna		10
A.6. Jarraipena			
	Jarraipenaren bermea	(*)	

Honi dagokionez:		Gehienez	
B. Gasteizko informazioaren eta sentsibilizazioaren balorazioa		100	100
8.1. Informazioaren eta sentsibilizazioaren eragina eta kalitatea			80
	Generoaren arloko betebeharrak	(*)	
	Euskara erabiltzearen arloko betebeharrak	(*)	
	Hartzaileen definizio zehatza, eta haiengana iristeko bermeak; haiengan aurreikusten den eragina		10
	Gaitasun biderkatzailea duten kolektiboek zuzendutako ekintzak		4
	Hartzaile euskaldunei zuzendutako berariazko jarduerak		3
	Trukatze-ekintzak eta ezagutzekoak		10
	Ikuspegia edo metodologia hartzaileentzat moldatzea		3
	"Giza eskubideek ez dute mugarik" kanpainan elkarlanean aritzeko prestutasuna		3
	"Giza eskubideek ez dute mugarik" kanpainan sartuta ez dauden beste entitate edo kolektibo batzuen partaidetza, elkarlanean		7
	Hirian errotutako ekitaldi edo programetan guztiz edo partez integratutako ekintzak		3
	Boluntarioak mobilizatzea		3
	Zabalkunde-sistemaren zehaztasuna eta egokitasuna		3
	Ikuspegia edo metodologia hartzaileentzat moldatzea		7
	Hizlarien, egileen, interpreteen eta abarren esperientzia eta itzala		7
	Erabilitako baliabide eta materialen kalitatea (bidezko bada)		7
	Genero-ikuspegia (edukiak eta garapena)		10

B.2.	Betebehar teknikoak eta aurrekontua			20
	Zehaztutako aurrekontu-mugetara egokitzea	(*)		
	Baliabide eta behar teknikoei buruzko informazioa		7	
	Aurrekontuaren zehaztasuna, eta jardueretara egokitzea		13	

6. eranskina: PT ataleko –proiektu txikiak– baremazio-taula.

Izartxo (*) batez markatutako kontzeptuetako edozeinetako betebeharra betetzen ez bada, proiektua lehiaketatik kanpo geldituko da.

Proiektuak lehenesteko faktoreak (puntuazioa bider kopuru hori egingo da):	
Afrikar bideratzekoa bada	1,05

Honi dagokionez:	Gehienez	
	100	100
1. Parte hartuko duen populazioa		8
Nahikoa informazioa (kuantifikatzea, sexuaren araberrako datuak, kokalekua)	(*)	
Populazioaren baldintzak eta egoera (ahultasun-egoera, premia, antolakuntza)		8
2. Aktoreak eta harremanak		18
Esperientziaren eta lankidetzaren arloko betebeharrak	(*)	
Eskatzaila, proiektukidea eta populazioarekiko harremana (esperientzia eta alde aurreko lankidetzak)		5
Migratzaileen kolektiboan eta GGKEaren arteko lankidetzak		9
Beste aktore sozial batzuk		2
Erakunde publiko lokalek jokatzeko duten papera		2
3. Proiektua		34
Nahikoa informazioa, koherentzia eta bideragarritasuna	(*)	
Testuingurua eta identifikazioa		7
Ikuspegia eta helburu sozialak		7
Proiektuaren osagai tekniko eta teknologikoak (bidezko bada)		7
Kalitate tekniko (plangintza, kudeaketa)		9
Eskatutako agiriak aurkeztea eta betekizunak betetzea, zuzenketarik egin beharrik gabe.		4
4. Generoa		9
Generoaren arloko gutxieneko betebeharrak:	(*)	
Emakumeak ahalduzko eta berdintasunerako ekintza eta neurriak		5
Genero-ikuspegiaren zeharkakotasuna, proiektuan		4
5. Proiektuaren aurrekontu orokorra		12
Aurrekontuaren eta finantzaketaren arloko betebeharrak	(*)	
Zehaztasuna eta egokitasuna		12
6. Iraunkortasuna (bidezko bada)		7
Nahikoa berme, proiektua bukatu ondoren zerbitzu edo ekimenak jarraipena izango duela (bidezko bada)	(*)	
Jarraitutasuna edo iraunkortasuna bermatzeko neurria		7
7. Jarraipena		
Jarraipenaren bermea	(*)	
8. Gasteizetikiko lotura eta eragina		12
Kolektiboan inplikazioa eta informazioa	(*)	
Aurrekariak; Gasteiztik lehendik izandako harremanak		6
Informazio-, topaketa-, truke- eta elkartzun-ekintzak		6



Gasteizko Udalari dirulaguntzak eta laguntza ekonomikoak justifikatzeko orriak

Anexos de Justificación de Subvención y Ayuda Económica del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz

informacion@vitoria-gasteiz.org

Gasteizko Udalari dirulaguntzak eta laguntza ekonomikoak justifikatzeko zinpeko deklarazioak – Gastuen egiaztatariak

Declaraciones juradas de justificación de subvención y ayuda económica del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz – Justificantes de gasto

ERAKUNDE ESKATZAILEA - ENTIDAD SOLICITANTE

Izena - Denominación		IFZ - CIF	
<input type="text"/>		<input type="text"/>	
Helbidea - Dirección	K.P. – C.P.	Herria - Localidad	Lurraldea - Provincia
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
E-maila – Correo electrónico	Telefonoa - Teléfono	Faxa - Fax	Web orria – Página Web
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>

Erakundea ordezkatzen duenaren datuak – Datos de la persona que representa a la entidad

Lehen deitura – Primer apellido	Bigarren deitura – Segundo apellido	Izena - Nombre
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
Nortasun agiria - Documento de identidad	Kargua elkarteetan – Puesto y cargo	
<input type="text"/>	<input type="text"/>	

PROIEKTUAREN IZENA – DENOMINACIÓN DEL PROYECTO

Proiektuaren izenburua - Título de proyecto	Proiektuaren kodea - Código del proyecto
<input type="text"/>	<input type="text"/>

ARGIBIDE OHARRAK	NOTAS ACLARATORIAS
Gastuen zerrenda saikatuak justifikatzean, honako datuak zehaztu behar dira:	<i>Al justificar la relación clasificada de los gastos, deberán especificarse los siguientes datos:</i>
1.- Mota: adierazi egiaztatariak fakturak, jaso-izana, nomina, TC1 edo TC2 diren.	1.- Tipo: especificar si el justificante es factura, recibí, nómina, TC1 o TC2
2.- Zenbakia: egiaztataria faktura bada, fakturaren zenbakia.	2.- Número: si el justificante es una factura, el número de la misma
3.- Data: fakturaren data. Nomina bada, zein hilabeteri dagokion.	3.- Fecha: fecha de emisión de la factura. Si e nómina, el mes al que corresponde
4.- Igorlea eta xede taldea: nominak badira, langilearen izen-deiturak.	4.- Emisor/destinatario: nombre y apellidos o denominación social del emisor de la factura o recibí. En el caso de las nóminas, nombre y apellidos de la persona empleada
5.- Kontzeptua: fakturan edo jaso-izanaren agirian ageri den kontzeptua.	5.- Concepto: el concepto que figura en la factura o recibí
6.- Zenbatekoa: zehaztu diruz lagundutako proiektuari egotzitako kopurua. Ohartxo bidez, fakturan, jaso-izanaren agirian, TC1 ean, TC2 an edo nominan ere adierazi behar da.	6.- Importe: especificar el importe imputado al proyecto subvencionado. Deberá también aparecer reflejado con un anotación en la factura, recibí, TC1, TC2 o nómina
7.- Zenbatekoa, guztira: kontzeptu bakoitzean justifikatutako guztiaren baturarekin bat etorri behar du zenbateko horrek.	7.- Total: el importe total se corresponderá con la suma de todo lo justificado en cada concepto



www.vitoria-gasteiz.org

Gasteizko Udalari dirulaguntzak eta laguntza ekonomikoak justifikatzeko orriak

Anexos de Justificación de Subvención y Ayuda Económica del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz

informacion@vitoria-gasteiz.org

ERAKUNDE ESKATZAILEAREN ADIERAZPEN ARDURATSUAK – DECLARACIONES RESPONSABLES DE LA ENTIDAD SOLICITANTE**Aitortutakoa baieztatzeko, ziurtatzeko edo egiaztatzeko baimena - Autorización para la comprobación, constancia o verificación de lo declarado**

X	Entitate eskatzailearen ordezkari legala bezala, baimena ematen diot, deialdi hau kudeatzen duen organoari, bide telematikoen bitartez edo eskuragarri dauden bideen bitartez administrazio eskuduneari dokumentu honetan aitortutako guztia egiaztatzeko, baieztatzeko edo ziurtatzeko.	Como representante legal de la entidad solicitante autorizo al órgano gestor de esta convocatoria a la comprobación, constancia o verificación en la administración competente por medios telemáticos o, en su caso, por los medios que se encuentren disponibles de todo lo declarado en este documento.
----------	--	---

Justifikatutako gastuen laburpena – Resumen de los gastos justificados

	Udala Ayuntamiento	Beste admin. batzuk Otras administraciones	Entitatea Entidad	Erabiltzaileak Usuarios/as	Beste entitate batzuk Otras entidades	Guztira Total
A.01 Lur eta eraikinak erostea <i>Compra de terreno y/o edificios</i>						
A.02 Eraikuntzak <i>Construcción</i>						
A.03 Ekipo eta materialak <i>Equipos y materiales</i>						
A.04 Tokiko langileak <i>Personal local</i>						
A.05 Atzerriratutako langileak <i>Personal expatriado</i>						
A.06 Gaikuntza eta prestakuntza <i>Capacitación y formación</i>						
A.07 Errotazio funtsa <i>Fondos rotatorios</i>						
A.08 Azterketak <i>Estudios</i>						
A.10 Sentsibilizazioa Gasteizen <i>Sensibilización en Vitoria-Gasteiz</i>						
B.01 Eskatzailearen zeharkako kostuak <i>Costes indirectos solicitante</i>						
B.02 Tokiko zeharkako kostuak <i>Costes indirectos local</i>						
Gastuak guztira - Total gastos						



www.vitoria-gasteiz.org

Gasteizko Udalari dirulaguntzak eta laguntza ekonomikoak justifikatzeko orriak

Anexos de Justificación de Subvención y Ayuda Económica del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz

informacion@vitoria-gasteiz.org

ZINPEKO AITORPENA - DECLARACION JURADA

Behean izenpetzen duenak bere erantzukizunpean aitortzen du adierazitako datuak benetakoak direla.
La persona abajo firmante declara bajo su responsabilidad que los datos incluidos son ciertos.

Vitoria-Gasteizen,(e).....ren(e)an *En Vitoria-Gasteiz, ade..... 20....*

Legezko ordezkariaren sinadura

Firma de la persona representante legal

Elkartearen zigilua

Sello de la entidad



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

Gasteizko Udalari dirulaguntzak eta laguntza ekonomikoak justifikatzeko orriak

Anexos de Justificación de Subvención y Ayuda Económica del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz

informacion@vitoria-gasteiz.org

DATU PERTSONALEN TRATAMENDUARI BURUZKO INFORMAZIOA INFORMACIÓN SOBRE EL TRATAMIENTO DE DATOS PERSONALES	
Tratamenduaren arduraduna <i>Responsable del tratamiento</i>	Vitoria-Gasteizko Udala – Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz (IFK-CIF:P0106800F)
Tratamenduaren arduradunaren kontaktu datuak <i>Contacto del Responsable del tratamiento</i>	Calle Pintor Teodoro Dublang kalea, 25 01008 Vitoria-Gasteiz, Álava 945 161 616 – información@vitoria-gasteiz.org – www.vitoria-gasteiz.org
Datuak Babesteko Ordezkararen kontaktu datuak <i>Contacto de la Delegada de Protección de Datos</i>	dbo-dpd@vitoria-gasteiz.org
Tratamenduaren xedeak	Udal zerbitzuei dagokienez herritarren eskakizunak artatzea, eta udal-eskumeneko prozedurak izapidetzea, 39/2015 legean aurreikusitakoarekin bat etorrira
<i>Finalidad del tratamiento</i>	<i>Atender las solicitudes de la ciudadanía en relación con los distintos servicios municipales, así como la tramitación de los distintos procedimientos de competencia municipal, de acuerdo con lo previsto en la ley 39/2015</i>
Tratamenduaren legitimazioa edo oianarri juridikoa	Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorra eta Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza. DBAOk 6.1.a) artikulua: Interesdunak bere datu pertsonalak tratatzeko adostasuna eman du helburu zehatz bati edo gehiagori begira.
<i>Legitimación o base jurídica del tratamiento</i>	<i>Ley General de Subvenciones y Ordenanza municipal de subvenciones. Artículo 6.1.a) RGPD: El interesado dio su consentimiento para el tratamiento de sus datos personales para uno o varios fines específicos.</i>
Hartzaileak	Datu pertsonalik ez zaie lagako hirugarrenei
<i>Destinatarios</i>	<i>Los datos personales no serán cedidos a terceros</i>
Gordetzeko epea	Datuak gorde egingo dira, jaso ziren xederako eta/edo xede horretatik eta datuen tratamendutik erator litekeen erantzukizun oro preskribatzeko lege ezarritako epeak iraungi bitartean. Horrez gain, gorde egongo dira baita pertsona interesatuarekin izandako harremanetik eratorri litezkeen erreklamazioak egiteko edo horietatik babesteko aurreikusitako epeak iraun bitartean. Orobat, artxibategi eta dokumentazioari buruzko araudian xedatutakoa aplikatuko zaie datuei.
<i>Plazo de conservación</i>	<i>Los datos se conservarán el tiempo necesario para cumplir con la finalidad para la que se recabaron y/o durante los plazos legales previstos para la prescripción de cualquier responsabilidad que se pudiera derivar de dicha finalidad y del tratamiento de los mismos, igualmente, se conservarán durante los plazos previstos para el ejercicio o la defensa de reclamaciones derivadas de la relación mantenida con la persona interesada. Asimismo, les será de aplicación lo dispuesto en la normativa de archivos y documentación.</i>
Pertsonen eskubideak	Datuak babesteko delegatuaren bitartez, pertsona interesatuak datuak ikusi ditzake, aldatzeko eskatu, edo, hala behar bada, datuak ezeztatzeko eskatu, horien kontra agertu edo tratamendua mugatzeko eskatu.
<i>Derechos de las personas</i>	<i>Las personas interesadas pueden acceder a sus datos, solicitar su rectificación o, en su caso, supresión, oposición o limitación de tratamiento, a través de la Delegada de Protección de Datos</i>